



**HIRI-HONDAKINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO
ATZEKO KARGAKO BI IBILGAILU PROZEDURA IREKI
BIDEZ ALOKAIRUAN HORNITZEKO KONTRATUA**

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

AURKIBIDEA

1. KONTRATUAREN XEDEA.....	3
2. HAUTATU ETA ESLEITZEKO PROZEDURA.....	3
3. KONTRATATZAILEAREN PROFILA.....	3
4. KONTRATUAREN ZENBATEKOA.....	3
5. KONTRATUAREN IRAUPENA	4
6. ORDAINKETA	4
7. KONTRATATZEKO GAITASUNA EGIAZTATZEA	4
8. ESKAINTZEN ETA ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOAREN AURKEZPENA.....	5
9. PROPOSAMENA BALIOESTEKO IRIZPIDEAK.....	7
10. KONTRATAZIO-MAHAIA	9
11. GARBITANIAKO ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK.....	9
12. ESLEIPENA	10
13. ALOKAIRU-ZERBITZUAREN GAINEKO BEHIN BETIKO BERMEA.....	10
14. KONTRATUA ESLEITZEA	11
15. KONTRATUA FORMALIZATZEA	11
16. ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.....	11
17. PREZIOAK BERRAZTERTZEA.....	12
18. KONTRATUA GAUZATZEA	12
19. KONTRATUA ALDATZEA	12
20. EZ-BETETZEAGATIKO ZIGORRAK.....	12
21. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.....	13
22. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA	13
I. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA	15
II. ERANSKINA: PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA	17
III. ERANSKINA: KONTRATATZEKO DEBEKUAN SARTUTA EZ DAGOENAREN AITORPENA	18
IV. ERANSKINA: PROPOSAMENA ERREGISTROAN AURKEZTEKO MODELOA....	19

1. KONTRATUAREN XEDEA

Hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko bi ibilgailu, atzeko kargakoak eta edukiera egokikoak, prozedura ireki bidez errentamenduan hornitzea da kontratuaren xedea, agiri honetan eta baldintza teknikoan agirian ezarritako baldintzen arabera.

Definitutako kontratuaren kalifikazioa hornidura-kontratu pribatua da, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 9. artikulua eta Garbitania Zero Zabor SLren Kontratazioko Barne Arauen A atalak ezartzen duten moduan, A atal horren arabera Garbitania Zero Zabor SLk egiten dituen kontratuak kontratu pribatuak baitira.

2. HAUTATU ETA ESLEITZEKO PROZEDURA

Hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko ibilgailuak alokairuan hornitzeko kontratua esleitzeko modua prozedura irekia da, eta prozedura horretan kontratazio-organoak justifikatuz aukeratutako izangaiari esleituko zaio kontratua, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 160.1 artikulua Garbitania Zero Zabor SLren Kontratazioko Barne Jarraibideen 2.3.2 puntuak ezartzen duten moduan.

3. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Kontratu-jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta informazio hori herritarren esku egongo dela ziurtatzeko, beste edozein publizitate-baliabide erabiltzeko aukera alde batera utzi gabe, Garbitania Zero Zabor sozietateak webgunean kontratugilearen profila dauka, eta hor adierazten dira zer baldintza bete behar diren bertan sartzeko. Hona hemen helbidea:

<http://www.garbitania.eus>

Helbide horretan kontratuaren lizitazioa eta esleipena argitaratuko dira.

4. KONTRATUAREN ZENBATEKOA

Kontratu honen zenbatekoa 182.400 euro da, eta horri balio erantsiaren gaineko zergaren % 21 gehituko zaio, guztira 220.704 eurora iritsiz.

Ibilgailu bakoitzeko hileko kuotaren gehieneko prezioa 3.800 euro gehi BEZari dagozkion 798 euro izango da, guztira 4.598 euro hileko izanik.

Kopuru hori Garbitania Zero Zabor sozietatearen urteko ustiapen-aurrekontuaren kargura ordainduko da (partida: 621.000.001 errentamenduak); Garbitania Zero Zabor sozietateak onartutako zenbatekoraino nahikoa kreditu dago, kontratua finantzatzea ahalbidetzen duten ekarpenen erabilgarritasun osoa egiaztatuta geratuz.

5. KONTRATUAREN IRAUPENA

Errentamendu-kontratuaren gehieneko iraupena 24 hilabetekoa izango da.

Kontratu honen xede diren ibilgailuen hornidurak hirurogei egun naturaleko entrega-epea izango du, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Hornidura ez bada epe horretan egiten, kontratistak agiri honetan adierazten diren berandutzagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die. Gainera, dagokion ibilgailua ekarri arte antzeko ezaugarriak dituen ordezko ibilgailu bat hornitzera behartuta dago. Baldintza hori bi ibilgailuentzat beteko da.

Hornidura egiteko lekua honako hau izango da: Lastaola industrialdea 3, A12 eraikina. 20120 Hernani (Gipuzkoa).

6. ORDAINKETA

Prezioa hileroko ordainduko da, hilabetea igaro ondoren fakturak aurkeztu eta gero; horniduraz arduratzen den pertsonak gainbegiratuko ditu eta, bidezko bada, dagokion organo eskudunak onartuko ditu. Behin fakturak onartu ondoren, legez aurreikusitako epeen barruan ordainduko dira.

7. KONTRATATZEKO GAITASUNA EGIAZTATZEA

Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte pertsona natural edo juridikoek, espainiar edo atzeritarrek, baldin eta jarduteko ahalmen osoa badute, kontratatzeke inolako debekurik ez badute, eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa frogatzen badute.

1. Enpresarien jarduteko gaitasuna honela egiaztatuko da:

a) Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna egiaztatuko da eraketako eskrituraren edo agiriaren bidez, estatutuen bidez edo sorrera-egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez. Dena delako agiri horretan jarduerak zer arauen arabera arautzen diren adierazita egon beharko du eta, gainera, pertsona juridiko horri dagokion erregistro publikoan inskribatuta ere egon beharko du. Ordezkararen kasuan, eskuordetza eskritura eta NANaren kopia ere aurkeztuko dira eta pertsona juridikoaren IFZ txartela ere bai.

b) Europar Batasuneko kide den estaturen batekoak izan, baina Espainiakoak ez diren enpresarien jarduteko ahalmena egiaztatzeke, bizi diren Estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo aplikatzekeak diren erkidegoko xedapenen araberrako zinpeko aitortpena edo ziurtagiria aurkeztu beharko dute, araudian ezarritako baldintzak betez. Gainera, atzerriko enpresek kontratuaren gora behera guztietarako auzitegi eta epaitegi espainiarren eskumenei men egingo dien aitormena sinatuta aurkeztuko dute, lizitatzailari dagokion eskumen foruei uko eginez.

2. Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan adierazten diren kontratatzeko debekurik ez dutela frogatu behar dute enpresariak. Horretarako:

a) Kontratatzeko debekuetan sartuta ez dagoela dioen aitortpena (III. Eranskina). Aitortpen honetan inarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta langileekiko betebeharrak (Gizarte Segurantza) egunean dituen adierazpena ere sartuko da.

b) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko enpresak badira, dagokion estatuko legerian horretarako aukera ematen bada, enpresariak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango du.

3. Enpresaburuaren kaudimena:

3.1 Enpresaburuaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa 3/2011 Errege dekretu legegileak 75. Artikuluan ezartzen duenaren arabera egingo da, ondorengo agiriak aurkeztuz:

a) Kontratuaren xedeak jasotzen duen zerbitzu motan eta pleguetan zehazten den zenbateko balioetsiaren balio bera (urtekoa) edo handiagoa duen urteko negozio bolumena.

3.2. Hornidura-kontratuetan, enpresaburuaren kaudimen teknikoaren justifikazioa 3/2011 Errege dekretu legegileak 78. artikuluan ezartzen duenaren arabera egingo da, ondorengo agirietako bat aurkeztuz:

a) Azken bost urteetan egindako hornidura nagusien zerrenda, gutxienez ere bost hornidurarekin, haien zenbatekoa, datak eta hartzaile publikoa nahiz pribatua adieraziz. Egindako hornidurak organo eskudunak egindako edo bisatutako ziurtagirien bitartez egiaztatuko dira, hartzekoduna sektore publikoko entitate bat denean, edo erosle pribatu bat denean, berak jaulkitako ziurtagiri baten bitartez, eta ziurtagiri hori ez badu, enpresaburuaren aitortpen baten bitartez.

b) Kalitatea kontrolatzeaz arduratzen diren ospe handiko institutu edo zerbitzu ofizialek egindako ziurtagiriak, produktuen erabat zehaztutako egokitasuna egiaztatzen dutenak zehaztaperen edo arau jakin batzuen aipamena eginez.

Baztertuta geratuko dira kontratuaren xedean zehazten diren egitekoak eginak dituztela egiaztatzen ez duten enpresen eskaintzak.

8. ESKAINTZEN ETA ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOAREN AURKEZPENA

Eskaintzak Garbitania Zero Zabor sozietatearen egoitzan aurkeztuko dira, honako helbide honetan: Lastaola Industrialdea 3, A12 eraikina, 20120 Hernani (Gipuzkoa), herritarren arretarako ordutegian, 9.00etatik 14.00etara, kontratuaren iragarkia GAOn

eta kontratatzailearen profilean argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasi eta 15 egun naturaleko epearen barruan. **Eta IV eranskina beteta.**

Kontsultak edo argibide-eskaerak honako helbide elektroniko honetara bidali beharko dira: info@garbitania.eus

Proposamenak posta bidez bidaliz gero, enpresaburuak posta-bulegotik zein egunetan bidali duen justifikatu beharko du eta, egun berean, info@garbitania.eus helbidera mezu bat bidaliz, eskaintza bidali duela jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari. Jakinarazpen horretan espedientearen zenbakia, kontratuaren xedearen titulu osoa eta hautagaiaren izena adierazi beharko ditu.

Bi betekizun horiek betetzen ez badira, kontratazio-organoak ez du onartuko proposamena argitalpenean adierazitako epea amaitu ondoren jasotzen bada. Edozein kasutan, aipatutako epea amaitu eta hamar egunera dokumentaziorik jaso ez bada, ez da onartuko.

Erabil daitezkeen bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoek, gainera, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren Hamaseigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Hautagai bakoitzak eskaintza bakarra aurkeztu ahal izango du. Bestalde, banakako eskaintza bat aurkeztu badu edo aldi baterako elkarte batean aurkeztu bada, ezin izango du aldi baterako beste elkarteren bateko proposamenik izenpetu. Arau horietako bat hautsiz gero, hark izenpetutako proposamenetako bat bera ere ez da onartuko.

Eskaintza bat aurkezteak enpresariak agiri honetako klausulak inolako baldintzarik gabe onartzen dituela esan nahi du.

Lizitazioan parte hartzeko eskaintza bi gutun-azal itxitan aurkeztu behar da. Hautagaiak sinatuko ditu eta enpresaren izena zein jakinarazpenak egiteko helbidea idatziko. Gutun-azalaren izena eta esaldi hau idatziko ditu: "Hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko atzeko kargako bi ibilgailu alokairuan hornitzeko kontratazioa negoziatzeko eskaintza". Gutun-azalen izenak hauek dira:

- "A" gutun-azala: Administrazio-dokumentazioa.
- "B" gutun-azala: Eskaintza ekonomikoa eta balorapen automatikorako dokumentazioa.

Gutun-azal bakoitzean sartu behar diren dokumentuek originalak edo kautotutako kopiak izan behar dute, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Kartazal bakoitzean dokumentu hauek sartu behar dira, zenbakiz zerrendatuta:

"A" GUTUN-AZALA

ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA

a) Lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpena, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarrita dauden baldintzak betetzen dituela adieraziz. **I. eranskinean** bilduta dagoen ereduari jarraikiz aurkeztuko da.

“B” GUTUN-AZALA

a) Eskaintza ekonomikoa. **II. eranskinean** bilduta dagoen ereduari jarraikiz aurkeztuko da.

b) Kontratazio-mahaiari eskaintzen gainerako baldintzak Agirietan ezarritakoaren arabera baloratzeko aukera ematen dieten dokumentuak.

9. PROPOSAMENA BALIOESTEKO IRIZPIDEAK

Eskaintzak balioesteko eta egokiena zein den erabakitzeko, hainbat alderdi hartuko dira kontuan.

- Prezioa
- Entregatzeko epea
- Espazio libre erabilgarria, ardatzen artean tresnak ipintzeko
- Kabinaren altuera eta sartzeko eta jaisteko duen ergonomia-maila
- Poltsaketa-altuera toberan
- Mantentze-zerbitzua

Kontratu hau prozedura irekiz esleituko da. Kontratu esleitzeko oinarri gisa erabiliko diren balorazio-irizpideei esleitzen zaien ponderazioa honako hau da:

LIZITAZIO- PREZIOA HOBETZEA	50 PUNTU
	<p>Edozein eskaintzaren “X beherapen %” kalkulatzeko honako formula hau erabiliko da:</p> $X \text{ beherapen \%} = 100 \times (1 - \text{“Eskaintza Prezioa X”} / \text{Lizitazio-prezioa})$ <p>Gehieneko puntuazioa (50 puntu) eskaintza merkeenari emango zaio, eta “A eskaintza” deituko diogu.</p> <p>Gainerako eskaintzak puntuatzeko honako formula hau erabiliko da:</p> $X \text{ Eskaintzaren Puntuazioa} = 50 - 2x(\text{“A beherapen \%”} - \text{“X beherapen \%”})$
KAMIOIAK HORNITZEKO EPEA	10 PUNTU
	<p>ibilgailuak hornitzeko ematen den eperik txikienari 10 puntu emango zaizkio. Gainerakoei dagokienez, 0.25 puntu deskontatuko dira eskaintzarik onenarekin dagoen diferentzia-egun bakoitzeko.</p> <p>Eskaintzak ibilgailu bakoitzarentzat entrega-epe desberdinak aurkezten baditu, eperik handiena izango da kontuan.</p>
POLTSAKETA- ALTUERA TOBERAN	10 PUNTU
	<p>Gehienez ere 5 puntura arte balioetsiko da kamioi bakoitzeko toberan dagoen poltsaketa-altuera. Eskaintza guztien artetik altuera txikienari 5 puntu emango zaizkio, eta eskatzen den gehienekoari (1400mm) 0 puntu. Gainerakoa hainbanatu egingo da.</p> <p>Bi ibilgailuen puntuazioa batu egingo da, eta atal honetan lor daitekeen puntuaziorik altuena 10 izango da.</p>
ARDATZEN ARTEKO ESPAZIO ERABILGARRIA	10 PUNTU
	<p>Ardatzen arteko espazio erabilgarriari dagokion puntuazioa, bi ibilgailuek duten bolumen librea batuz kalkulatu da Eskaintzaren puntuazioa kalkulatzeko honako metodo hau erabiliko da:</p> <p>Gehieneko puntuazioa (10 puntu) bolumen erabilgarri handiena eskaintzen duenari emango zaio, eta “A eskaintza” deituko diogu.</p> <p>Gainerako eskaintzak puntuatzeko honako formula hau erabiliko da:</p> $X \text{ eskaintzaren puntuazioa} = \text{“X Bolumena”} \times 10 / \text{“A Bolumena”}$

ZORUTIK KABINAKO SARRERARA DAGOEN ALTUERA	10 PUNTU
	<p>Kabinako zoruraino dagoen altuerari dagokion puntuazioa ibilgailu bakoitzarentzat adierazitako altuera batuz kalkulatu da. Eskaintzaren puntuazioa kalkulatzeko honako metodo hau erabiliko da:</p> <p>Gehieneko puntuazioa (10 puntu) altuera txikiena duen eskaintzari emango zaio, eta “A eskaintza” deituko diogu.</p> <p>Gainerako eskaintzak puntuatzeko honako formula hau erabiliko da:</p> $X \text{ eskaintzaren puntuazioa} = \text{“A Bolumena”} \times 10 / \text{“X Bolumena”}$
MANTENTZE- ZERBITZUA	10 PUNTU
	<p>Mantentze-zerbitzuari dagokion puntuazioa, laguntza teknikoko zerbitzuaren eta Garbitania Zero Zabor sozietatearen zentralaren artean dagoen distantzia kontuan izanik kalkulatu da, eta horretarako, ibilgailuarekin egin daitekeen ibilbiderik laburrenaren benetako kilometroak izango dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 0-20km artean: 10 puntu - 20-50km artean: 5 puntu - 50km baino gehiago: 0 puntu

OHARRA: Ibilgailu bakoitzak bere puntuazio indibiduala izango badu ere lizitatzailerak jasotako guztizko puntuazioa bi ibilgailuen puntuazioen baturak emandakoa izango da.

10. KONTRATAZIO-MAHAIA

Honako kide hauek osatzen dute Kontratazio Mahaia:

- Garbitania Zero Zabor sozietateko kudeatzailea.
- Usurbilgo udaleko zerbitzu-arloko zinegotzia.
- Hernaniko udaleko ingurumen-arloko zinegotzia.
- Garbitania Zero Zabor sozietateko Koordinatzailea.
- Garbitania Zero Zabor sozietateko Ingurumen teknikaria.
- Garbitania Zero Zabor sozietateko langileen ordezkari bat.

11. GARBITANIAKO ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 210. artikularen arabera, kontratazio-organoak eskumen hauek ditu:

- a) Kontratua interpretatzekoa.
- b) Kontratua betetzeari dagozkion zalantzei buruzko erabakiak hartzea.
- c) Kontratua aldatzea, interes publikoari dagozkion arrazoiak direla medio.
- d) Kontratua suntsiaraztea eta erabaki horien ondorioak zehaztea.

12. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta bosgarren egun baliodunean eratuko da kontratazio-mahaia. A gutun-azaletakako administrazio-dokumentazioa kalifikatuko du.

Hautagaiak aurkeztu duen dokumentazioan ikusi diren akats edo omisio konpongarriak zuzentzeko hiru egunetik gorakoa izango ez den epe bat eman ahal izango du mahaia.

Ondoren, "B" gutun-azalak irekiko eta aztertuko ditu eta, beharrezko irizten badio, dagozkion txosten teknikoak eskatuko ditu.

Txostenak jaso ondoren, kontratazio-mahaia berriro bilduko da eta kontratazio-organoari dagokion esleipen-proposamena egingo dio.

Errekerimendua hartu eta hurrengo egunetik hasita hamar egun balioduneko epean, dokumentu hauek aurkezteko eskatuko dio kontratazio-organoak puntuaziorik handiena lortu duen eskaintza aurkeztu duen lizitatuileari:

- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 146.1 artikulua eta baldintza partikularren agiri honen **7. puntuak** aipatzen dituzten aurretiazko betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa
- Bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzen duen dokumentua edo kontratazio-organoak ziurtagiri hori zuzenean lortzeko baimena.
- Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 64.2 artikulua arabera, kontratua betetzeko hitzartu dituen bitartekoak badituela ziurtatzen duen dokumentua.
- Ibilgailuen seguruen kopia.
- Era berean, E.J.Z.n kontatuak duen helburuari dagokion epigrafean alta emanda dagoela ziurtatu beharko du, horretarako alta edo azken errezioboaren kopia aurkeztu beharko duelarik.
- Behin betiko bermea eratu duela ziurtatzen duen dokumentua.

Garbitania Zero Zabor sozietatearekin kontratatzeko eskatzen diren ahalmen eta kaudimenari lotutako baldintzak betetzen direla ikusteko une erabakigarria, proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean izango da.

13. ALOKAIRU-ZERBITZUAREN GAINEKO BEHIN BETIKO BERMEA

Puntuaziorik handiena jaso duen eskaintza aurkeztu duen hautagaiak esleipen-zenbatekoaren % 5eko bermea eratu beharko du. Horretarako, ez da kontuan izango Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

Berme hori modu hauetara aurkez daiteke:

- a) Garbitania Zero Zabor sozietatearen kontuan gordailu bat eginez.
- b) Abal bidez. Abal hori aipatutako Legea garatzen duten arauak xedatutako modu eta baldintzetan mailegatu beharko dute Espainian jarduteko baimena duten bankuek, aurrezki kutxek, kreditu kooperatibek edo elkarren bermerako sozietateek. Abala Garbitania Zero Zabor sozietatearen egoitzan gordailutu behar da.
- c) Kauzio-aseguruaren kontratu bidez. Kontratu hori aipatutako Legea garatzen duten arauak xedatutako modu eta baldintzetan egin beharko du arlo horretan jarduteko baimena duen entitate aseguratzaile batek. Aseguruaren ziurtagiria Garbitania Zero Zabor sozietatearen egoitzan entregatu beharko da.

Bermea ez da itzuliko edo indargabetuko, berme-epa amaitu arte eta kontratua behar bezala bete arte.

Berme honek azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 100. artikuluan bildutako kontzeptuak izango ditu kontuan, eta kontratua amaitu den egunetik zenbatzen hasi eta hilabete bat igaro ondoren itzuli egingo da edo aipatu 100. artikuluan aipatzen dituen erantzukizunak argitu ondoren ezereztu egingo da.

14. KONTRATUA ESLEITZEA

Eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio-organoak kontratua esleitu beharko du.

Kontratatzailearen profilean argitaratuko da esleipena.

15. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Behin betiko esleipena jakinarazten den egunetik hasi eta hamabost egun balioduneko epean formalizatuko da kontratua. Dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan aurkeztu ahal izateko.

Kontratatzaileak kontratua eskritura publiko modura jasotzea eska dezake baina, kasu horretan, gastu horiek bere gain hartuko ditu.

16. ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Kontratatzaileak kontratu honen erregimen juridikoa dela-eta dituen betebeharez gain, honako betebeharrak ere baditu:

Kontratatik kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren baliabide pertsonal edo materialak ekarri edo atxiki behar ditu nahitaez (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 64.2 artikulua).

Kontratatik, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 227. artikuluan azpikontratazio-kasuetarako aurreikusitako baldintzak bete behar ditu nahitaez.

Esleipendunak ez du eskubiderik izango Administrazioari entregatu aurretik ondasunek izandako galera, matxura edo kalteengatik kalte-ordaina jasotzeko, Administrazioa ondasun horiek jasotzerakoan berandutzen den kasuan izan ezik.

Ondasunak jasotzeko egintza formala, agiri honen baldintzak kontuan izanik, entregatu ondoren egiten bada, Garbitania Zero Zabor izango da horien zaintzaren erantzule entregatzen direnetik egintza formala egin arte.

Errentamendu-kontratu bat denez gero, errentatzaile edo enpresaburuak kontratua indarrean dagoen bitartean bere xedeari eusteko betebeharra bere gain hartuko du.

Kontratatari eska dakizkiokeen gastuak. Kontratatik bere gain hartu behar ditu kontratua formalizatzearen ondoriozko gastuak eta zergak, baita aplikatu beharreko beste edozein ere, indarrean dauden xedapenen arabera, eta xedapen horiek adierazitako modu eta zenbatekoetan.

17. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Ez dagokio.

18. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratatik kontratua gauzatzeko finkatutako epe osoaren barruan bete behar du kontratua, bai eta elkarren segidako epe partzialak ere.

Kontrata berandutzan sartzen bada, Garbitania Zero Zabor sozietateak ez dio aurrez ohartarazi beharrik.

19. KONTRATUA ALDATZEA

Kontratuari ez zaio aldaketarik egingo.

20. EZ-BETETZEAGATIKO ZIGORRAK

Kontrata, hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, ibilgailua entregatzeko epea betetzeari dagokionez atzerapenean erori bada, Garbitania Zero Zabor sozietateak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi, ala eguneroko zigorrak ezarri,

ibilgailu bakoitza entregatzerakoan atzeratzen den egun bakoitzeko 130 euroko proportzioan.

Atzerapenagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5en multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak eskumena izango du hura bertan behera uzteko edo, beste zigor batzuk ezarriz, hura gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.

Kontratistak, hari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, kontratuan zehaztutako prestazioak zati batean gauzatuko ez balitu, Garbitania Zero Zabor sozietateak kontratua bertan behera utz dezake edo bestela lehendik aipatutako zigorrak ezar ditzake.

Zigorrak kontratazio-organoaren erabaki bidez ezarriko dira, kontratuaren arduraduna izendatu denean hark egindako proposamenari jarraikiz, erabakia berehala betearazi beharrekoa izanik, eta kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko kopuruetatik edo, hala badagokio, eraturako behin betiko bermetik kenduko dira kopuruak, adierazitako ziurtapenetatik ezin direnean kendu.

21. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratua suntsiaraziko da Agiri honetan adierazten diren kasuetan eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 223. eta 299. artikuluetan adierazten diren kasuetan, eta kontratazio-organoak erabakiko du, ofizioz edo kontratistak eskatuta.

Kontratua kontratistaren erruz eten bada, behin betiko bermea konfiskatuko da; horrek, ordea, ez dio inolako kalterik ekarriko Garbitania Zero Zabor sozietateari eragindako kalte eta galeren kalte-ordaina ordaintzeko beharrari, bermearen zenbatekoa gainditzen duen kasuetan.

22. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu honek izaera pribatua du eta kontratua prestatzeko, esleitzeko, izango dituen eraginetarako eta eteteko baldintza-agiri hauetan ezarritakoa hartuko da kontuan, eta bertan aurreikusten ez diren gauzetarako, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina eta Garbitania Zero Zabor SLren Kontratuzioko Barne Jarraibideetan ezarrita dagoena aplikatuko dira.

Jurisdikzio zibilak izango du kontratu honetan alderdien artean sortzen diren auziak konpontzeko eskumena.

EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.-ko Administrazio Kontseiluak onartu zuen, 2017ko maiatzaren 11an egindako bilkuran.

Hernanin, 2017ko maiatzaren 11n .



LEHENDAKARIA



GERENTEA

SINADURAK

I. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

_____ jaunak/andreak, jakinarazpenak jasotzeko honako helbide hau duenak: _____ kalea, ___ zk., _____, NAN zk.: _____, _____, erakundearen ordezkari gisa (IFK: _____, honako lizitazio honetan parte hartzeko: _____, honako honen aurrean _____.

BERE ERANTZUKIZUNPEAN DEKLARATZEN DU:

LEHENA. Hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko atzeko kargako bi ibilgailuren alokairu-hornidurarako kontratazioan parte hartzeko asmoa duela.

BIGARRENA. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 146. artikulua lehen puntuak eskatzen dituen aurretiazko betekizun guztiak betetzen dituela hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko atzeko kargako bi ibilgailuren alokairu-hornidurarako kontratuaren esleipendun izateko, hain zuzen ere:

- Nortasun juridikoa eta, hala badagokio, ordezkari-tza duela.
- Enpresa behar bezala sailkatuta dagoela edo, hala badagokio, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela.
- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan adierazten diren kontratatzeko debeku bakar bate ere ez duela, eta indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak eguneratuta dituela.
- Espainiako edozein ordenatuko epaitegi eta auzitegi-tako jurisdikzioaren pean jartzen dela, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitekeen edozein gorabehera ebazteko eta, hala badagokio, lizitatu-zaileak dagokio-keen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diola (atzerriko enpresen kasuan).
- Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa honako hau dela _____.

HIRUGARRENA. Adierazpen honen bigarren atalean aipatzen diren dokumentuak badituela eta baliozkoak direla frogatzeko konpromisoa hartzen duela, kontratuaren esleipendun gisa proposatzen badute edo horretarako eskaera egiten dioten edozein unetan.

Eta hori horrela jasota gera dadin, adierazpen hau sinatu du.

_____, 20ko _____aren __ (a)

Adierazpen-egilearen sinadura

Sin.: _____

II. ERANSKINA: PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

_____ jaunak/andreak, jakinarazpenak jasotzeko honako helbide hau duenak: _____ kalea, ___ zk., _____, NAN zk.: _____, _____, erakundearen ordezkari gisa (IFK: _____), lehiaketaren argitalpena irakurri, eta hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko atzeko kargako bi ibilgailuren alokairu-hornidurarako kontratua prozedura ireki bidez esleitzeko eskatzen diren baldintza eta betekizunen jakitun, adierazten dut lehiaketaren oinarri den agiriaren berri dudala eta osorik onartzen dudala, eta konpromisoa hartzen dudala kontratuaren xedea betetzeko hileroko _____ euro eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkion _____ euro ordaintzeko.

Era berean, ibilgailuak entregatzeko epea _____ egun dira.

_____, 20ko _____aren __ (a)

Hautagaiaren sinadura,

Sin.: _____

III. ERANSKINA: KONTRATATZEKO DEBEKUAN SARTUTA EZ DAGOENAREN AITORPENA

(Eredu honen aurkezpena derrigorrezkoa da).

..... jaunak/andereak, NAN zenbakidunak, bere izenean edo, (adierazi ordezkari mota: administrari bakarra, apoderatua...), enpresaren izenean eta ordezkari, (honek egoitza soziala.....(e)n eta CIF-IFK-zka. duelarik) zera

ADIERAZTEN DU:

Bere erantzukizunpean adierazten duela berak ordezkari duen enpresa ez dagoela, indarrean dagoen legeriaren arabera, administrazioarekin kontratuak egiteko debekutasunetan sartuta.

Bera eta ordezkari duen enpresa zerga eta Gizarte Segurantzak ezarritako betekizunetan egunera daudela.

Eta behar den tokian behar diren efektuak izan ditzan aitortzen hau sinatzen duen 2017kon.....n.

Sinadura eta enpresaren zigilua

IV. ERANSKINA: PROPOSAMENA ERREGISTROAN AURKEZTEKO MODELOA

.....jaunak/andereak,NAN zenbakidunak, bere izenean edo, horrela bada, enpresaren izenean eta ordez, (honek egoitza soziala.....(e)n eta CIF-IFK-zka. duelarik) eta helbide elektronikoa duenak zera

ADIERAZTEN DU:

..... egunean eta orduan, "Hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko bi ibilgailu, atzeko kargakoak eta edukiera egokikoak, prozedura ireki bidez errentamenduan hornitzeko" abian jarri duen lehiaketan parte hartzeko proposamena jasotzen den 2 gutunak aurkeztu dituela.

Hernanin, 2017koen.....an.

Aurkezlearen sinadura